

### III. PAZKO IGANDEA (C)

#### Otoitza

Poztu dadila beti, Jauna,  
biziberritu eta gaztetu duzun zeure herria;  
iguzu, zure seme ordekotza berriturik pozez gaudenok,  
uste sendoenaz itxaron dezagula piztuera eguna.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 5, 27b-32. 40b-41

*Gu gara gauza hauen testigu,  
baita Espiritu Santua ere.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Apaiz nagusiak galdetu zien apostoluei: «Ez al genizuen zorrotz agindu, Horren izenean ez erakusteko? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen erakutsiz, eta Gizon horren odolaren erantzukizuna guri ezarri nahi diguzue».

Pedrok eta apostoluek erantzun zuten: «Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena; ez gizakiena. Gure arbasoen Jaungoikoak piztu egin zuen, zuek habetik zintzilik hil zenuten Jesus.

Jaungoikoak goratu egin du bere eskuinez, eta Buruzagi eta Salbatzaile egin, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Gu gara gauza hauen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere».

Jesusen izenean hitzegitea galerazi zieten eta joaten utzi. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenarengatik irainak jasateko gai aurkitu zituztelako.

ERANTZUN SALMOA: Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b

**R/. Goretsiko zaitut, Jauna,  
onik atera nauzulako.**

Edota: **Aleluia.**

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,  
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.  
Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,  
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Eresi egiozue, zintzoek, Jaunari,  
eman eskerrak Haren izen santuari.  
Une baterako da Haren haserrea,  
bizi guztirako Haren on izatea.  
Negarra dator arratsaldean,  
baina poza goizean. R/.

Entzun niri eta nitaz erruki, Jauna,

izan zakizkit laguntzaile, Jauna.  
Negarra, dantza bihurtu didazu,  
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

II. IRARURGAIA: Ap 5, 11-14

*Indarra ta gorespina hartzeko bada nor  
hila izan den Bildotsa.*

Apokalipsis liburutik

Nik, Joanek, begiratu nuen eta aingeru askoren mintzoa aditu nuen; milaka eta miloika ziren, aulkiaren eta bizidunen eta zaharren inguruan; eta hots haundiz honela zioten: «Indarra eta aberastasuna, jakinduria eta ahalmena, ospea, aintza eta gorespina hartzeko bada nor hila izan den Bildotsa».

Eta zeruko eta lur gaineko, lurpeko eta itsasoko, eta haietan diren izaki guztiei hau aditu nien: «Errege aulkian dagoenari eta Bildotsari, gorespina, ospea, aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan».

Eta lau bizidunek erantzun zuten: «Amen». Eta zaharrek, ahuspezturik, gurtu zuten, gizaldi eta gizaldietan bizi dena.

EBANJELIOA: Jn 21, 1-19

**Aleluia**

R/. Aleluia.

V/. Piztu da Kristo, gauza guztiak egin zituena,  
eta gizadiak erruki izan duena. R/.

*Jesusek, hurbildurik, hartu zuen ogia eta haiei eman zien;  
baita arraina ere.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesus Tiberiades itsas bazterrean agertu zitzairen berriro ikasleei. Eta honela agertu zitzairen. Elkarrekin zeuden: Simon Pedro, Bizkia zeritzan Tomas, Natanael Galileako kanatarra, Zebedeoren semeak, eta ikasleetako beste bi. Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Haiek erantzun: «Bagoaz gu ere zurekin». Atera ziren, eta ontzira igo. Baina gau hartan ez zuten batere hartu. Egunsentian Jesus ur ertzean agertu zen; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zenik. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue arrainik?» Eta haiek: «Ez!» Jesusek orduan: «Bota sarea ontziaren eskuin aldera, eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta ezin zuten atera arrainketaren haundiaz.

Orduan, Jesusek hain maitea zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna

zela aditu zueneko, lotu zuen atorra (beste jantzirik ez baitzuen) eta jauzi egin zuen itsasora. Beste ikasleak ontzian etorri ziren, sarea arrastaka zekartela (lehorretik ehunen bat metrora besterik ez baitzeuden).

Lehorrera jaitsi zirenean, sua aurkitu zuten, eta su gainean arrain bat, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekar itzazue arrain batzuk, hartu berri horietatik». Igo zen ontzira Simon Pedro, eta lehorreraino ekarri zuen sarea, ehun eta berrogeitamahiru arrain haundiz betea; eta hainbeste izanik ere, ez zuen urratu sarea. Jesusek esan zien: «Zatozte eta jan». Eta ikasleetako inor ez zen ausartu, Hari «nor zara Zu?» galdetzeraz, bai baitzekiten Jesus zela. Orduan Jesusek, hurbildurik, hartu zuen ogia eta haiei eman zien; baita arraina ere.

Hau izan zen, Jesusek ikasleei egindako hirugarren agertaldia, hilen artetik piztu ondoren.

[Haiekin jan ondoren, galdetu zion Pedrori: «Joanen seme Simon, hauek baino gehiago maite al nauzu?» Pedrok erantzun: «Bai, Jauna, Zuk badakizu maite zaitudala». Jesusek orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Berriro galdetu zion: «Joanen seme Simon, maite al nauzu?» Pedrok erantzun: «Bai, Jauna, Zuk badakizu maite zaitudala». Eta Jesusek: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion: «Joanen seme Simon, maite al nauzu?» Hirugarrenez «maite al nauzu» galdetu ziola eta, goibeldu egin zen Pedro, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Jesusek orduan: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: Gazte zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa, eta nahi zenuen tokira joaten zinen. Zahartutakoan, ordea, besoak zabaldu beharko dituzu, eta gerrikoa bestek lotuko dizu, eta zuk nahi ez duzun tokira eramango zaitu».

Hori esan zion, nolako heriotzaz Jaungoikoa goratuko zuen adierazteko. Eta gero, esan zion: «Jarrai Niri».]

### **Oparigaien gainekoa**

Onar, Jauna, zure Elizak pozik ekarritako eskaintzak,  
eta, horrelako poza eman diozunez gero,  
emaiozu fruitutzat betiko zoriona.  
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

Begira, Jauna,  
sakramentuen bidez berriztatu duzun zeure herriari;  
eta, bizitza hilezkorrerako egin gaituzunez gero,  
emaguzu piztuerara iristea.  
Jesu Kristo.